



945/2011 FORU AGINDUA KONTU-AUDITOREEN JARDUN-ARAUAK

Ogasun eta Finantza Saileko Foru Diputatuaren 945/2011 Foru Agindua, apirilaren 15(e)koa. Honen bidez, foru sektore publikoko diru-laguntzen justifikazio-kontuak berrikusteko lanak egiteko kontu-auditoreen jardun-arauak onartzen dira; lan horiek maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren Erregelamenduko 59. artikuluan daude aurrez ikusita (martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak onartu zuen erregelamendu hori).

Martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onartu zen maiatzaren 31ko Foru Arauaren Erregelamendua. Bada, erregelamendu horretako 59. artikuluan arautzen da justifikazio-kontua auditorearen txostena aurkeztuta egitea; era horretako justifikazio-kontua da onuradunak dituen moduetako bat diru-laguntza ematean ezarritako baldintzak bete dituela eta aurrez ikusitako helburuak lortu dituela justifikatzeko.

Justifikazio mota horren bidez, diru-laguntzaren oinarri arautzaileek ezar dezakete foru erregelamendu horretako 57. artikuluko 2. zenbakian aipatzen den txosten ekonomikoan jaso beharreko informazioa gutxitzea, hain zuzen ere, honako kasu hauetan:

- a) Justifikazio-kontuarekin batera kontu-auditore baten txostena aurkeztea; kontu-auditore horrek jarduneko auditore gisa egon behar du inskribatuta Kontabilitatearen eta Kontu Auditoretzaren Institutuaren menpeko Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean.
- b) Kontu-auditoreak diru-laguntzaren oinarri arautzaileetan ezarritako nondik norakoan arabera berrikustea justifikazio-kontua, eta, horretarako, Foru Administrazioaren eremuan diru-laguntzen finantza-kontrolerako eskumena esleituta dituen organoak jarduteko eta ikuskatzeko proposatzen dituen arauak betetzea.
- c) Erregelamendu horretako 57. artikuluko 1. zenbakian aipatzen den txostenaz gain, justifikazio-kontuak txosten ekonomiko laburtua jasotzea; baina kontu horrek, gutxienez, diruz lagundutako jarduerak betetzeari lotutako gastu-sarrerak erakusten dituen egoera-orri bat jaso behar du.

Goiko b) letran aurrez ikusitakoaren babesean, foru agindu honen helburua da foru sektore publikoan jarduera hori egiteko jardun-arauak onartzea; horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak kontu-auditoreen jarduera arautu behar duten oinarriak, metodologia eta arauak egin eta proposatu ditu; auditoreek egin behar dituzten lanen nondik norakoak mugatu ditu, eta zehaztu du zein eduki izan behar duen eginiko berrikuspenaren ondoriozko txostenak.



Auditorearen lana jardun-arau hauetan ezarritako egiaztapenak egitera mugatzen da. Helburua da diru-laguntzaren organo emaileari txosten bat ematea, justifikazioa egokia den egiaztatzen lagunduko diona; horretarako, aplikatu beharreko araudiari edo diru-laguntza jasotzeko ezarritako baldintzei dagokienez onuradunaren ez-betetzereen bat eta justifikazio-kontuan jasotako datuetan aldaketaren bat ekar ditzaketen gertaerak, errakuntzak edo salbuespenak jasoko ditu.

Auditoreak, Foru Administrazioarekin duen lotura berezi hau dela-eta, zorrotz bete behar du jardun-arau hauetan ezarritakoa; horrez gainera, osagarri gisa, profesional mota horri honako hauek ere aplikatu behar zaizkio: independentzia, bateraezintasuna, ardua profesional, sekretu profesional, ordainsariak eta lan-paperak direla-eta kontu-auditoriari buruzko indarreko araudian ezarritako arau eta printzipioak.

Jarduteko prozedurei dagokienez, diru-laguntzaren araudia kontuan hartuta, auditoreak diru-laguntzei buruzko Erregelamenduko 59. artikuluan aurrez ikusitakoaren arabera eskatu behar du justifikazio-kontua. Kontu hori izango du oinarri jarduera-txostenaren eta txosten ekonomiko laburtuaren gaineko berrikuspen-jarduera espezifikokoak egiteko.

Txosten ekonomiko laburtua berrikustean, egiaztatu beharko du ea betetzen diren 5/2005 Foru Arauan eta hura garatzeko erregelamenduan diru-laguntzetarako ezarritako betekizun orokorrak eta ea betetzen diren diru-laguntza jakin bakoitzaren araudian aukeraketa egiteko bereziki ezarritako baldintza eta arau zehatzak.

Jardun-arau hauetan, bestalde, auditorearen eta diru-laguntzaren onuradunaren artean sinatu beharreko kontratuaren gutxieneko edukari buruzko zehaztasun batzuk jasotzen dira; kontratu horretan, besteak beste, isilpekotasun-klausula bat egon behar da, Foru Agindu honetan aurrez ikusitako mugak eta salbuespenak jasotzen dituen.

Azkenik, txostenak gutxienez ere jaso behar duen edukia adierazten dute arauak; horrez gainera, eredu bat eransten dute, txostenaren egitura eta formatua normalizatzeko.

Ondorioz,

HONAKO HAU XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra. Kontu-auditoreen jardun-arauak onartzea.

Foru sektore publikoko diru-laguntzen justifikazio-kontuak berrikusteko lanak egiteko kontu-auditoreen jardun-arauak onartzen dira; lan horiek maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia

Ogasun eta
Finantza Saila
Departamento de
Hacienda y Finanzas

Erregelamenduko 59. artikuluan daude aurrez ikusita (martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak onartu zuen erregelamendu hori). Honen eranskinean jasotzen dira arauak.

AZKEN XEDAPENA

Lehenengo. Finantza, Aurrekontu eta Ondarearen zuzendari nagusia gaitzea.

Finantza, Aurrekontu eta Ondarearen zuzendari nagusiari ahalmena ematen zaio foru agindu honen interpretazioaren eta aplikazio praktikoaren ondorioz sortzen diren arazoak direla-eta beharrezko diren jarraibide eta ebazpen guztiak emateko.

Bigarren. Indarrean jartzea.

Foru agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2011ko apirilaren 15ean.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua,

Diputado Foral de del Departamento de Hacienda y Finanzas

José María Iruarizaga Artaraz.